

ESTONIAR ERREPUBLIKAKO HIZKUNTZ LEGEA

Estoniar Errepublika Sobietar Sozialistako hizkuntza ofiziala estoniera da. Estonian, estoniarren lurralde zaharrea alegia, Estatuak ardura eta babes berezia eskainiko dizkio estoniar hizkuntzari. Estoniera hizkuntza ofizialtzat hartzearekin, oinarri sendoa finkatu da estoniar herria eta kultura gorde eta garatzeko.

Estoniar Errepublika Sobietar Sozialistako gizabanako orok, eta baita enpresa, instituzio edo erakunde orok ere, izango dute bermatut estoniera erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.

Estoniar Errepublika Sobietar Sozialistak Estonian estonieraren irakaskuntza eta hizkuntza, eta hizkuntza honetan eginiko ikerketak, bermatuko ditu; era berean, estonieraren irakaskuntza eta hizkuntza honetan eginiko ikerketak Estoniatik kanpo ere bultzatuko ditu.

Errusieraren tratamenduari dagokionez, lege hau Batasun osorako komunikazio beharrak eragiten du, eta baita estonieraren ondoren Estoniako ESS-an mintzatzen den bigarren hizkuntza delakoak ere.

Estoniera hizkuntza ofiziala izateak ez ditu inoren eskubide zibilak zapaltzen, bere ama-hizkuntza edozein izanik ere. Estatuak estoniar hizkuntzari babesa emanik ere, estoniar ESS-ak beste nazionalitateetako hiritar guztiek beren hizkuntza erabili eta kultura propioa garatzeko duten eskubide ukazina ezartzen du, eta baita hiritar guztiek legearen aurrean duten berdintasuna ere, ama-hizkuntza edozein dutelarik.

1. artikulua. Estoniako ESS-ko Konstituzioaren 5. artikuluari jarraiki, Estoniar Errepublika Sobietar Sozialistako hizkuntza ofiziala estoniera izango da.

Hau, beraz, Estatu agintaritza eta gobernu-erakundeei aplikatuko zaie, nola beren ihardueretarako beste hizkuntza bat erabiltzen duten enpresa, instituzio eta taldeei.

Gizabanakoa

2. artikulua. Estoniako ESS-ko lurraldean, gizabanakoak eskubidea dauka komunikatu eta bere zereginak gauzatzeko estoniera erabiltzeko Estatu agintaritza eta gobernu erakundeetan, nola beren ihardueretarako beste hizkuntza bat erabiltzen duten enpresa, instituzio eta taldeetan.

3. artikulua. Era berean, Estoniako ESS-ean Estatu agintaritza eta gobernu erakundeetan nola beren ekinbideetarako beste hizkuntza bat erabiltzen duten enpresa, instituzio eta taldeetan zereginak gauzatzeko errusiera erabiltzeko posibilitatea bermatuko da.

Gizabanako batekiko harremanak beste hizkuntzetan egin daitezke, posibilitateen eta ihardueraren helburuen arabera.

4. Artikulua. Gizabanakoekiko komunikazioa eskatzen duen lanbidea duten

pertsonentzat, adibidez, exekutibo eta administrari guztiak, agintaritza eta gobernu-erakundeetako pertsonal, erakunde publiko, sistema judizial, lege eta ikuskatze organuak, osasunbide-pertsonal, kazetari, merkatal eta komunikazio enplegatu, istripu eta erreskate zerbitzuetako pertsonal, etab. entzat hizkuntz eskakizun batzu ezarriko dira. Estoniera, errusiera eta beste hizkuntza batzu menderatzea eta erabiltzea ezinbestekoa izango da Lege honen 37. artikuluan xedatutako eskakizunen baitan.

5. artikulua. Menpekoekiko komunikazioetan, exekutiboek eta administratzaileek lehenengoek hautatu hizkuntza erabiliko dute, eskatzen zaien hizkuntz-maila gainditzeko derrigortasunik ez daukatelarik.

6. artikulua. Zerbitzu eta merkataritzan, zerbitzuak eskaintzen dituztenek, eskatzen zaien hizkuntz-mailaren mugak gainditu gabe, bezeroek hautatu hizkuntza erabili beharko dute.

7. artikulua. Gizabanakoaren hizkuntz-hautaketari begirunerik ez edukitzea edo berau kontutan ez izatea debekatuta egongo da eta, legeak aurrikusitako zenbait kasutan, zigorgarria izango da.

Agintaritza eta gobernu-erakundeak

8. artikulua. Estoniako ESS-ko agintaritza eta gobernu-erakundeen hizkuntza ofiziala estoniera izango da. Estoniako ESS-ko agintaritza eta gobernu erakundeen ihardunaldi eta batzarrak estonieraz egingo dira eta aktak hala jasota egongo dira.

Estoniako ESS-ko agintaritza eta gobernu-erakundeen agiri ofizialak estonieraz egin eta argitaratuko dira, eta berauen itzulpenak errusieraz.

Errusiera hizkuntza ofizialtzat Estoniako ESS-ko agintaritza eta gobernu-erakundeetan erabili ahal izango da, lege honen 36. artikulua araberera.

9. artikulua. Estoniako ESS-ko agintaritza eta gobernu-erakunderen bat Estoniako ESS-tik kanpoko pertsona edo instituzioren bati zuzentzen bazaio, bi aldeek onartutako hizkuntza bat erabiliko da.

10. artikulua. Estoniako ESS-ko agintaritza eta gobernu-erakundeek estoniera erabiliko dute Estoniako ESS-an dauden enpresa, instituzio eta taldeekiko idatzizko komunikazioetan, eta baita elkarrekiko harremanetan ere.

11. artikulua. Estoniako ESS-an pertsona bati zuzentzerakoan, Estoniako ESS-ko agintaritza eta gobernu erakundeek estoniera erabiliko dute, baina pertsona horrek estoniera menderatuko ez balu, errusiera nahiz beste hizkuntzaren bat erabiliko litzateke.

Estoniako ESS-ko agintaritza eta gobernu-erakundeek pertsonari bere iharduerak estonieraz nahiz errusieraz komunikatu eta gauzatzeko posibilitatea bermatzen dio, eta beraiei agiriak estonieraz nahiz errusieraz igortzekoa, agiriaren xedearen araberera edo pertsonaren nahiaren araberera. Estoniako ESS-ko agintaritza eta gobernu-erakundeetan agiriak beste hizkuntzetan komunikatu edo argitaratzea gerta liteke, erakundearen helburu eta posibilitate, bertako populazioaren konposaketa etniko

edo nazioarteko komunikazio beharren arabera.

Enpresa, instituzio eta erakundeak

12. artikulua. Estoniako lurraldean kokaturiko enpresa, instituzio eta erakundeetako hizkuntza ofiziala, nazioarteko komunikazioetarako, estoniera izango da.

Aldi baterako, errusierak hizkuntza ofizial izaten jarrai dezake erakundeetan, Estoniako ESS-ko Sobiet Gorenaren Presidium-ak ezarritako baldintzapean; horrela, epeak erakundeek estoniar hizkuntzara aldatzeko duten gaitasunaren balorapen errealistetan oinarrituz ezarriko dira. Enplegatuei lanari buruzko informazioa estonieraz jasoko dute eta estonierazko barne-agiriak onartuko dituzte. Errusieraz funtzionatzen jarraitzen duten enpresa, instituzio eta erakundeetako azpi-taldeek estonieraz aritzeko eskubidea izango dute. Barne-komunikazioa estoniera ez den beste hizkuntzaren batetan ere egin liteke, Lege honen 20. eta 25. artikuluen arabera.

13. artikulua. Enpresa, instituzio eta erakundeek dokumentazio teknikoa bere jatorrizko hizkuntzan erabil dezakete.

Estoniako ESS-ko enpresa instituzio eta erakundeek bezeroak hala eskatuta eta ez bestela argitara dezakete dokumentazio teknikoa estoniera ez den beste hizkuntzaren batetan.

14. artikulua. Estoniako ESS-tik kanpoko pertsona nahiz erakunde bati zuzentzerakoan, Estoniako lurraldean kokaturiko enpresa, instituzio edo erakunde batek bi aldeek onartutako hizkuntza bat erabiliko dute.

15. artikulua. Estoniako ESS-an kokaturiko enpresa, instituzio eta erakundeek estoniera erabiliko dute elkarren artean edota Estoniako ESS-ko agintaritza eta gobernu-erakundeekin komunikatzeko.

Beren barne komunikazioetan errusiera erabiltzen duten enpresa, instituzio eta erakundeek errusiera erabil dezakete bata bestearekin edota Estoniako ESS-ko agintaritza eta gobernu-erakundeekin komunikatzeko.

Armadako hizkuntz-erabilpena ez du lege honek arautuko.

16. artikulua. Estoniako ESS-an pertsona nahiz erakunde bati zuzentzerakoan, enpresa, instituzio edo erakundeek estoniera erabiliko dute; pertsonak estoniera menderatuko ez balu, errusiera nahiz beste hizkuntzaren bat erabiliko litzateke.

Estoniako ESS-ko enpresa, instituzio eta erakundeek pertsonari bere iharduerak estonieraz nahiz errusieraz komunikatu eta gauzatzeko edota agiriak jasotzeko posibilitatea bermatuko diote, agiriaren xedearen arabera edo pertsonaren nahiaren arabera.

17. artikulua. Estoniako ESS-an kokaturiko enpresa, instituzio eta erakundeen Errepublika barneko txosten eta finantza-agiriak estonieraz egingo dira.

Epaitegiak

18. artikulua. Legezko prozeduratako hizkuntz-erabilpena Estoniako ESS-ko Konstituzioaren 158. art.ren arabera emango da.

Hezkuntza, zientzia eta kultura

19. artikulua. Estoniako ESS-ak hiritar orok ama-hizkuntzan hezitzeko duen eskubide berdina onartzen du.

Estoniako ESS-ak estonierazko hezkuntza lurralde osoan bermatuko du.

Errusierazko hezkuntza orokorra bermatuko du ere, errusieraz mintzo den populazioaren banaketaren arabera.

20. artikulua. Estoniako ESS-ko hiritarrek eskolaurreko eta hezkuntza orokorra eskola elebakarretan jasotzeko eskubidea izango dute.

Estoniarrak ez diren umeentzako haurtzaindegi eta eskoletako barne-komunikazioak beren hizkuntzan egin ahal izango dira.

21. artikulua. Estoniako ESS-ak estonieraren irakaskuntza bermatuko du beste hizkuntzetan lan egiten duten eskola eta ikas-talde guztietan, berauek edozein erakunderen kontrolpean egonik ere.

Goi-mailako ikastetxeetan, estoniera menderatzen ez duen ikasle orori estoniera irakatsiko zaio.

22. artikulua. Estoniako ESS-ko hiritarrek eskubidea izango dute aukerako hezkuntza ertain, berezia eta goi-mailakoa estonieraz jasotzeko, Estoniako ESS-an irakasten diren espezialitate guztietan.

Estoniako ESS-an errusiar eskoletan graduatu direnek bermatuta izango dute ondoren Estoniako ikastetxeetan aukerako hezkuntza ertain, berezia eta goi-mailakoarekin jarraitzeko eskubidea, errusierazko ikas-talde edo ikastetxeak sortzearen bitartez, Errepublikaren behar eta posibilitateen arabera; eta era berean, estonieraren irakaskuntza intentsibo baten bitartez, lanbiderako eskolaratzearen lehen mailan.

23. artikulua. Estoniako ESS-ak bermatu egingo du titulu akademiko bat lortzeko tesi edo memoriak estonieraz aurkeztu eta defendatzeko eskubidea.

Argitalpen zientifikoen hizkuntzaren hautaketa ez da mugatua izango Estoniako ESS-an. Memoriak eta tesiak dagokion talde akademikoak onartutako edozein hizkuntzatan aurkeztu eta defendatu ahal izango dira.

24. artikulua. Estoniako ESS-ak bermatu egingo du estoniar kultura garatzearen lehen tasuna, aldi berean beste talde etnikoen kultur.iharduerei laguntza emango dielarik ere.

Estonierazko informazio hedapena Estoniako ESS-ko herri eta eskualde guztietan bermatuko da.

Estoniako ESS-ak bermatu egingo ditu estonierazko irrati eta telebista kateak eta halaber azken hau estoniako ESS lurralde osoan ikusi ahal izatea ere.

Estoniako ESS-ak bermatu egingo du filme, bideo eta beste ikus-entzuteko materialak estonierara itzultzea erakusketa publikoetan.

Errusiar telebista programa, irratsaio eta argitalpenetan Estoniako ESS-ari buruzko informazio zabala bermatuko da.

Erlijio-iharduera eta elizkizunei dagokienez, hizkuntz erabilpena ez du Lege honek arautuko.

25. artikulua. Estoniako ESS-ko komunitate etnikoek beren hizkuntza erabil dezakete beren ihardueretan eta beren hizkuntzan kaleratutako argitalpen, inprimaki eta agiriak eduki ditzakete.

Bilkurak

26. artikulua. Estoniako ESS-an burutuko diren batzar, hitzaldi eta beste bilkuretako hizkuntza aukeratu ahal izango da. Beharrezkoa bada, ulergarritasuna bermatuko da itzulpen zerbitzuen bitartez.

Nazioarteko eta errepubliken arteko bilkuretako hizkuntza eta itzulpena antolatzaileek erabakiko dute.

Izenak

27. Artikulua. Estoniako ESS-an, toki izenak estonierazkoak izango dira. Historikoki eta kulturalki motibatuak dauden salbuespenak eta ez besterik onartuko dira.

Estoniako ESS-ko toki orok izen ofizial bakarra izango du. Izen hau estoniar latindar alfabetoan finkatuko da eta Estoniako ESS-ak finkaturiko arauen arabera transkriba daiteke beste alfabetoetara.

28. artikulua. Estoniako ESS-ko estoniar hiritar baten izenak izen bat edo gehiagok eta deitura bakun edo bikoitz batek osatzen dute. Izenari beste zati batzu gaineratzea interesatuak hala eskatuta eta ez bestela egingo da. Pertsona baten izena estoniar latindar alfabetoan finkatuko da eta Estoniako ESS-ak finkaturiko arauen arabera transkriba daiteke beste alfabetoetara.

Estoniako ESS-ko estoniarra ez den hiritar batek bere tradizio nazionalaren arabera izena eramateko eskubidea edukiko du, baina erabilpen ofizialetarako izenak gutxienez deitura eta izen bat izango ditu. Estonierazko agirietan, estoniarra ez den hiritar baten izenaren transkribapena arau ofizialetan oinarrituko da.

29. artikulua. Latindar alfabetoan idatzitako Estoniako ESS-ko leku eta pertsona izenen nazioarteko forma Estoniako ESS-an erabilitakoen berdina izango da.

Estonierazko hitz bateko edo jatorriz latindar alfabetoan idatziriko izen ofiziala duen garraibide, eraikuntza, e-estruktura, etab.en kasuan, bere nazioarteko forma estoniar

testuetan azaltzen den bezelakoa izango da.

30. artikulua. Izenen erabilpenerako arau zehatzak Estoniako ESS-ko Izenei buruzko Legean finkatuko dira.

Seinaleak eta informazioa

31. artikulua. Estoniako ESS-an estonierazko inprimakiak erabiliko dira. Estoniar testua itzulpenez osa liteke.

Estoniera ez den beste hizkuntzazko inprimakiak Lege honen 12, 20, 24. artikuluen arabera erabil daitezke, eta halaber Estoniako ESS-tik kanpoko pertsona nahiz erakunde bati zuzentzerakoan.

32. artikulua. Zigilu eta ikurren testua estonierazkoa izango da, beharrezkoa bada itzulpena izango delarik.

33. artikulua. Jendaurrean erakusten diren seinale, kartel, ohar eta iragarkietako testua estonieraz egongo da. Beste hizkuntzetarako itzulpen edo transkribapenak gainera daitezke, baina ez dira estonierazko testua baino luzeagoak izango. Itzulpenak tokian tokiko populazio, errepublikarteko eta nazioarteko beharrak kontutan hartuta egingo dira.

Komunitate etnikoen kultur ihardueren, eskolen eta nazioarteko komunikaziorako diren kartel, ohar eta iragarkiak beste hizkuntzetan egon daitezke.

Estoniako ESS-an saltzen diren ondasunek argibide-orri bat izango dute, estonieraz ere. Estoniako ESS-an ekoiztu eta saltzen diren produktuen etiketek gutxienez estonieraz azaldu behar dute.

34. artikulua. Estoniako ESS-an erabiltzen diren fabrika-marketako konbinazio hizkiak latindar alfabetoko karakterrak eta ez besterik eduki ditzake.

Legearen aplikazioa

35. artikulua. 2, 3, 11 eta 16. artikulua urtebeten hasiko dira indarrean. 6. artikulua, 10. artikulua 1. parrafoa, 31 eta 32. art., 33 artikulua 3. parrafoa bi urtetan, eta 5 art., 15 artikulua 1. parrafoa, 17 eta 34 artikulua, Lege hau kaleratu eta lau urteren barruan.

36. artikulua. Zenbait administrazio lokal eta gobernu-erakunderi dagokienez, non errusiera hizkuntza ofizialtzat darabilten, eta berauen jurisdikziopean dauden populazioaren gehiengoak estoniera menderatzen ez duen, Lege honen 8. artikulua 1. parrafoa indarrean sartzea Estoniako ESS-ko Sobiet Gorenaren Presidium-ak atzera dezake, beronek xedatuko duelarik epea zein izango den estoniera hizkuntza ofizialtzat berrezartzeko aukera zehatzak zeintzu diren ikusi ondoren.

Goiko parrafoa ez dagokio Tallinn-i, Estoniako ESS-ko hiriburuari alegia, ez eta bere edozein eskualderi.

37. Artikulua. Lege honetako 4. artikulua piskanaka jarriko da indarrean Lege honen aldarrikapenaren ondorengo lau urteetan.

4. artikuluan zerrendatutako espezialitate eta postuak, pertsona hauek lan-kontratu bat amaitzean eman behar duten hizkuntz-maila, frogagirien eskakizunak, hizkuntz-irakaskuntzari buruzko erregulazioak, eta halaber 4. artikulua indarrean sartzeko epeak Estoniako ESS-ko Ministro Batzordeak erabakiko ditu, Estoniako ESS-ko Sobiet Gorenaren Presidium-aren menpe dagoen Hizkuntzaren Babeserako Batzordearen onespenez.

Legea betetzeari buruzko erantzunkizuna eta gainbegiraketa

38. artikulua. Administrazio lokal eta agintaritza eta gobernu-erakundeetako buruek, nola enpresa, instituzio eta erakundeetako administratzaileek beren gain hartu beharko dute Lege hau betetzeari buruzko erantzunkizun pertsonala, dagokien jurisdikzioan.

Aipaturiko funtzionariak, eta halaber Lege honetako 4. artikuluan aipaturiko pertsonak, Lege honen borondatezko urraketaren errudun aurkituak izatean, Legeak aurrikusi bezala zigorra josoko dute.

39. artikulua. Lege hau betetzeari buruzko gainbegiraketa Estoniako ESS-ko Sobiet Gorenaren Presidium-aren eta honek eratu beharreko Hizkuntzaren Babeserako Batzordearen esku utziko da.

Arnold Ruutel
Lehendakaria
Estoniako ESS-ko Sobiet Gorenaren Presidium-a

Viktor Vaht
Idazkaria
Estoniako ESS-ko Sobiet Gorenaren Presidium-a

Tallin, 1989eko Urtarrillak 18.

Hiritarren Eskubide Etnikoei buruzko Estoniako Errepublikako Legea

Estoniako ESS-ak etnien garapen librearen beharra onartzen du eta autoerrealizazio etnikoa bultzatzen du.

Estoniako ESS-ko hiritar guztien eskubide etnikoetarako berma bakarra Estoniako herriak bere lurralde etniko eta burujabetzarako duen eskubide ukaezina da eta ez besterik.

Estoniako ESS-ko beste hiritarren eskubide etnikoak gauzatzerakoan, estatuaren abiapuntua estoniar eta talde etnikoen indarrak batzeko beharra da, Estoniako subiranotasun politiko, ekonomiko eta kulturala erdiesteko.

1. artikulua

Estoniako ESS-ak, estatu subirano eta librea dena, bere bizilagun guztiei bermatzen dizkie eskubide eta askatasun politiko, ekonomiko eta sozialak, beren jatorri etnikoa edozein delarik ere.

2. artikulua

Estoniako biztanle guztiek, beren jatorri etnikoa eta nazionalitatea edozein delarik ere, Estoniako ESS-ko konstituzioa eta Errepublikako beste legeak ere aintzakotzat hartu beharra dute, eta estoniar eta beste talde etnikoen kultura, ohiturak eta tradizioak errespetatu.

3. artikulua

Estoniako ESS-an osatu eta legeari jarraiki erregistratu diren elkarte etnikoek eskubidea dute lege-zirriborroak beren errepublikako organuen bidez aurkezteko.

4. artikulua

Estoniako hizkuntza eta kultura bultzatzeaz gain, Estoniako ESS-ak baldintzak sortuko ditu talde etnikoek beren kultura eta hizkuntza libreki gara ditzaten.

Jatorri etniko guztietako hiritarrek honetarako eskubidea dute:

- Kultur elkarte etnikoak sortzeko

- Hezkuntza orokorra estonieraz, errusieraz edo beste hizkuntzaren batetan jasotzeko, estatuko eskoletan nahiz kultur elkarteen bidez.

- Lanbide hezkuntza, goi mailakoa edo ondorengoa estonieraz, errusieraz edo beste hizkuntzaren batetan jasotzeko, estatuak berau Estoniako ESS-ko beharren arabera bermatzen duelako.

- Informazioa zabaldu eta kultur bizitza beren hizkuntzan eratzeko, beren ohitura etniko eta erlijiozkoen jarraiki.

- Estoniako ESS-tik kanpoko talde etniko bereko kideekin komunikatzeko, dagokien nazioetako erakunde eta elkarte etnikoekiko kultur taldeen bitartez harremanak izateko.

5. artikulua

Kultura etnikoaren garapenerako lanean diharduten erakundeek eskubidea dute, estatu sistematik at eta beren diruaz, kultur eta hezkuntz instituzioak eratzeko, fundazioak sortu eta sariak eta bekak emateko, negozioetan parte hartzeko eta argitalpenak kaleratzeko.

6. artikulua

Monumentu etniko, kultural eta historikoak eta ikur etnikoak estatuaren babespean egongo dira.

7. artikulua

Estoniako ESS-ko hiritar guztiek dute zein talde etnikorekin identifikatzea nahi duten libreki erabakitzeko eskubidea, beren jatorri etnikoaren arabera. Estatuak talde etniko bakoitzaren harrotasuna eta duintasuna babesten ditu.

Inor ez da bere jatorri etnikoari uko egitera behartua izango.

8. artikulua

Jatorri etnikoa dela eta, beste hiritar bat edonola iraintzea debekatuta dago.

Legeak zigortu egingo du edozein bereizkeria, nagusikeria edo gorroto etniko.

9. artikulua

Lege hau gauzatzeko beharrezkoak diren legezko ekintzak Estoniako ESS-ko Sobiet Gorenak hartuko ditu bere gain.

Arno Almann
Estoniako ESS-ko Sobiet Gorenaren Presidium-aren Lehendakaria

Viktor Vaht
Estoniako ESS-ko Sobiet Gorenaren Presidim-aren Idazkaria

LETONIAKO ERREPUBLIKAKO HIZKUNTZEN LEGEA

Letonia da herri letoniarra bizi deneko munduko lurralde etniko bakarra. Herri honen, bere kulturaren eta bere garapenaren arrazoiatariko bat hizkuntza da, letoniera alegia. Azken hamar urteotan letonieraz geroz eta gutxiago mintzatzen da bizitza sozialari nahiz estatu mailakoari dagokionez eta arrazoi horregatik beharrezkoa ikusten da letoniera babestuko duten ekinbide bereziak zehaztea. Letoniera babestea helburuduten ekinbide horiek hizkuntzaren estatutuak bermatzen ditu. Horregatik, estatuak ziurtatu egiten du letonieraren erabilpen erabatekoa bizitza estatal eta sozialeko atal guzti guztietan, baita ezkuntzan ere.

Letoniako Errepublikak atzerrian letonieraren ikaskuntza eta irakaskuntzarako bideak erabat zabaltzen ditu. Aldi berean Letoniako Errepublikan mintzatzen diren gainontzeko hizkuntza eta dialekto oro errespetatu daitezzen zaintzen du.

Estatuko hizkuntza ofizialaren estatutua letonierari dagokio, beraz, estatutu horrek ez dio uko egiten beste naziotasun bat izanik beren ama hizkuntza edota beste hizkuntzaren bat erabiltzeko duten eskubide konstituzionalari.

OROKORTASUNAK

1. Artikulua.

Letoniako Errepublikan letoniera da Estatuko hizkuntza ofiziala.

2. Artikulua.

Estatuak ziurtatu egiten du letoniako herritar guztiek letoniera ikasteko duten eskubidea, finantziatu egiten du estatuko instituzioetan letonieraren ikasketa eta behar den material didaktikoaren ekoizpena antolatu egiten du.

3. Artikulua.

Letoniako Errepublikako hizkuntzen legeak zehaztu egiten du letonieraren nahiz beste hizkuntzen erabilera zein den estatu, ekonomia eta gizarteko ataletan, era berean aukeratzeko eskubidea eta hizkuntzen babespena ere ziurtatu egiten ditu.

2. kapitulua: Biztanleek duten eskubidea hizkuntzak aukeratzekoan.

4. Artikulua.

Biztanleek duten aukera egiteko eskubidea gauzatu dadin, Estatu eta Administrazio botereko instituzio orok, baita enpresa eta erakundeetako enplegatuek ere estatuko hizkuntza ofiziala ulertu eta erabili egin beharko dute bere lan profesionalak burutu ahal izateko. hizkuntzen ezagupena zenbaterainokoa behar duen izan Letoniako Errepublikako Ministrari Kontseiluak onetsitako araudiak zehazten du.

5. Artikulua.

Letoniako Errepublikaren mugetan antolatzen diren biltzarre, bilera eta bestelako saioetako hizlariak libre daukate gogoko duten hizkuntza aukeratzea beren ihardunetarako.

Saio publikoetan, antolatzaileek ziurtatu egin beharko dute estatuko hizkuntza ofiziala den letonierarako itzulpena egitea. Baldintza honek ez du eraginik izango baldin eta antolatzailea nazioko erakunde kulturalen bat edo erlijiosuren bat denetan.

3. kapitulua: Estatu eta Administrazio botereko instituzioetan, enpresetan, establezimendu eta erakundeetako Hizkuntza.

6. Artikulua.

Letoniako Errepublikako administrazioiko eta botereko instituzioetan bilera eta batzarraldiak estatuko hizkuntza ofizialean egingo dira. Ez bailitz hizkuntza hori ezagutuko, bilera eta batzarraldietan beste hizkuntzaren bat erabili ahal izango da, baina betiere, erabateko adostasunez. kasu honetan, eta bilerara edo batzarraldira etorri direnetariko norbaitek horrela eskatuko balu, antolatzaileek estatuko hizkuntza ofizialera, hots, letonierarako itzulpena ziurtatu egin beharko dute.

Enpresek, establezimenduek eta erakundeek, beren jatorriko nazioarekin dituzten harremanetan lanerako araudi hau erabiliko dute, baldin eta horrek garapen normalari eragiten ez dion artean eta nazioarteko eskubideekin eta tradizioekin kontraesanik sortzen ez baldin bada.

Estatuko, administrazioiko, nahiz udalerrietako instituzioei establezimenduek, enpresek eta erakundeek aurkezteko dituzten dokumentazioak estatuko hizkuntza ofizialean beharko dute egon idatzita.

8. Artikulua.

Estatuko eta administrazioiko instituzioek herritarrei aurkeztutako dokumentazioa estatuko hizkuntza ofizialean egongo da idatzita, baita enpresek, erakundeek eta estatuko establezimenduek aurkezten dituztenak ere.

Heziera akademikoa frogatzen duen dokumentazioa eta testu zientifikoko artikulua ingelesez idatzia egon daiteke, baina betiere alboan estatuko hizkuntza ofizialean idatzitakoa duelarik.

Enpresetako eta erakundeetako establezimendu kreditatuek argitaratzen duten dokumentazioan estatuko hizkuntza ofizialarekin batera beste batzu ere erabil ahal izango dira.

Estatuko nahiz administrazioiko instituzioek eta era berean establezimenduek, enpresek eta erakundeek letonieraz, ingelesez, alemanieraz eta errusieraz jasotzen dituzten dokumentazioak onetsi egin behar dituzte. Beste hizkuntza batzuetan idatzitako dokumentazioetan beharrezkoa da estatuko hizkuntza ofizialera egindako itzulpenaz laguntzea, azken hori notari batek onetsia egon beharko duelarik.

9. Artikulua.

Letoniako Errepublikako estatuko eta administrazioiko instituzioek eta establezimenduek, erakundeek eta beren enplegatuek biztanleek idatzizko eskariei eta murtziloiei erantzuna estatuko hizkuntza ofizialean emango diete. Estatuko eta administrazioiko instituzioek, establezimenduek, erakundeek eta beren enplegatuek eskarigileak erabili duen hizkuntzan ere eman dezakete beren erantzuna.

4. kapitulua: Irakaskuntzaren, Zientziaren eta Kulturearen Hizkuntza.

10. Artikulua.

Letoniako Errepublikan bermatua dago heziera estatuko hizkuntza ofizialean jasotzeko eskubidea. Beste naziotasun bat duten biztanleek heziera beren ama hizkuntzan jasotzeko duten eskubidea ere onetsia dago.

11. Artikulua.

Letoniako Errepublikak bermatu egiten du ertaineko heziera espezialduak eta profesionalak estatuko hizkuntza ofizialean jasotzea, baita beste hizkuntzetan ere Letoniako Errepublikarentzako beharrezko diren espezialitateetan, ez delarik kontutan hartzen hezkuntz establezimenduak estatuarekiko duen lotura.

12. Artikulua.

Hezkuntz establezimendu guztietan beste heziera hizkuntza batekin batera, letoiera irakatsiko da, zerikusirik izan gabe administrazioarekiko lotura. Oinarrizko, hezkuntza ertaineko, hezkuntza ertain espezialduko, lanbide eskoletako eta gainontzeko ikasleek letoierari buruzko azterketa gainditu egin beharko dute. Letoniera zein mailataraino ezagutu behar den zehaztuta dago eta hizkuntza horren irakaskuntza ziurtatu egiten du Letoniako Hezkuntz Ministraritzak eta dagokien gainontzeko ministraritzek.

13. Artikulua.

Irrati eta telebista nazionaleko emanaldietan, beste nazioetara zuzenduriko zuzeneko saioak ezik, letonieraz izango dira. Kasu berezi horietan emanaldiak itzuliak beharko du egon, hizlariak dioena azpitemu batetan azalduko delarik itzulita estatuko hizkuntza ofizialean.

14. Artikulua.

Ikerketa zientifikoetan erabili behar den hizkuntzaren aukera librea da Letoniako Errepublikan. Maila zientifikokoak izateko memoriak letonieraz nahiz beste hizkuntza batez aurkeztu eta idatzita egon beharko dute. Hizkuntza letoniera ez eta besteren bat denean mailen artikulaziorako kontseilu Zientifikoak onetsia beharko du egon, beti ere egilearekin adostasunean.

15. Artikulua.

Letoniako errepublikan bermatuta dago letonieraren eta bere dialektoen erabilera, baita legezko idatzizko hizkuntzarena ere. Estatuak berebat bermatu egiten du letonieraren babesa eta garapena.

5. kapitulua: Hizkuntza titulu eta informazioan.

16. Artikulua.

Letoniako Errepublikako toponimoak letonieraz daude osatuta eta eginak. Beste hizkuntza batetan eman behar direneko kasuak administrazio lokalak zehazten ditu.

17. Artikulua.

Establezimendu, enpresa eta erakundeen izenak letonieraz osatuta eta eginak eta beharrezkotzat erizten bada beste hizkuntza batetan eman ahal izango dira, baita itzulita ere.

18. Artikulua.

Pertsona izenak letonieraz letoniako tradizioaren edota lege linguistikoen arabera erabiltzen dira. Beste hizkuntzaren batetik jasotako pertsona izenak izen propioen eraketarako arauak erabiliz idatzi eta erabiliko dira.

19. Artikulua.

Estatuko eta administrazioko testu sekretuak, nahiz establezimendu, erakunde eta enpresetakoak letonieraz egongo dira idatzita. Atzerriko gaietarako Ministeritzako testu sekretuak beste hizkuntza batetan idatziak egon daitezke..

20. Artikulua.

Iragarki publikoak, kartelak, pankartak, publizitatea, etiketak eta argibide eta erabilerarako azalpenak estatuko hizkuntza ofizialean egongo dira idatziak. Etiketak, argibideak eta erabilpenerako azalpenak letonieraz gain beste hizkuntza batetan idatziak egon daitezke.

Merkantzien logotipoak ez dira beste hizkuntzetara itzuliko.

Artikulu honen erabilera Letoniako Errepublikako Ministrari Kontseiluak onetsitako araudiak erreglamentatzen du.

6. kapitulua: Hizkuntzen babespena.

21. Artikulua.

Hizkuntzen Legea betetzen denetz Letoniako Errepublikako Kontseilu Goreneko Lehendakaritzako Estatuko Hizkuntz Batzordeak., Ministrari Kontseiluko Estatuko Hizkuntz Zentruak, Estatuko Hizkuntz ikuskatzaileek eta agintari lokalek zaintzen dute.

22. Artikulua.

Zerbitzuetako establezimendu eta erakundeek, non bertako agintariak edota enplegatuek biztanleekin harreman jarraia bait duten, estatuko hizkuntza ofiziala den letoniera ez ulertzetik sortzen diren kalteak konpondu egin beharko dituzte, ondorioz galera ekonomikorik egon bada diru hori itzuliz, bai agintariak berak, bai enplegatuek. Establezimenduak edo erakundeak eskubidea dauka, indarreango ekintza juridikoak ezarri ostean, agintari edo enplegatu horren aurkako ekintzei iharduteko.

23. Artikulua.

Hizkuntzen Legeahausten dutenei printzipio legislatiboen arabera eskatuko zaizkie erantzunkizunak.

**A. Gorboumov, Letoniako Errepublikako Kontseilu Goreneko Lehendakaria.
I. Daoudich, Letoniako Errepublikako Kontseilu Goreneko Idazkaria.**

RIGA, 1.992 martxoaren 31a.